

40 VRTE  
ZARAUZ ARRAUN ELKARTEA

# Aupa Enbata!



# ZARAUZKO HITZAGUKA

[www.zarauzkohitza.eus](http://www.zarauzkohitza.eus)



*Herriko albisteen  
berri euskaraz  
eta gertutik  
kontatuta*



# Arraun EGUTEGIA



## ABUZTUA

**19 / 20**

### ZARAUTZ

Zarauzko Arraun Elkartearen XIV. eta III. ikurriñak (KAE1 eta ETE).

**20**

### BILBO

Bilbo Hiria L. Ikurriña eta Ane Aizpuruaren Oroimezko III. Estropada (ETE).

**26**

### COLINDRES

*Play off-a* (KAE1).

**26**

### ONDARROA

Ondarroako Bandera (TKE).

**27**

### ERANDIO

*Play off-a* (KAE1) eta ETE ligako estropada.

**27**

### GETARIA

Getariako Bandera (TKE).

**31**

### DONOSTIA

Kontxako Banderarako sailkapena (TKE eta Euskotren).

## IRAILA

**3 / 10**

### DONOSTIA

Kontxako Bandera.

**16**

### BERMEO

*Play off-a I* (KAE1)

**7**

### PORTUGALETE

*Play off-a II* (KAE1)

3

Hipermerkatua



**EROSKI**

Zarautz

# ZAE, arrauna eta lagunartea

- 4 40. urteurrena ospatzen ari da aurten Zarauzko Arraun Elkar-  
tea (ZAE). Urtemuga berezia aitzakiatzat hartuta, historiaz, gaur  
egungo egoeraz eta etonkizunaz hitz egin du ZARAUZKO HI-  
TZAK elkarteko arduradunekin.

**I**tsasoari begira bizi da Zarautz, eta, beraz, ur ekintzak eta kirolak ohikoak dira zarauztarren artean. Gaur egun surfean ikus daitezke hainbat eta hainbat herritar, baina, aurretik, arrauna izan zen herriko kirol nagusietako bat. Arrauna bale-ehizatik dator, eta zarauztarrek asko dakite arrantza modalitate horretaz, XIX. mende osoan zehar euskal uretan ehizatu zituzten hiru baleetatik bi zarauztarrek hil baitzituzten. Bale-ehiza horretatik sortu ziren estropadak, XVIII. mendean, eta idatziek adierazten dutenez, Gipuzkoako lehen estropada Zarautzek egin zuen, Getariaren aurka, 1761ean.

1983. urtea zen, eta Xanti Sanchezek Pello Argoterekin eta losu Aizpuruarekin topo egin zuen. Arrauna hizpide





1986an egin  
zuten lehenengo  
denboraldia  
traineruetan

2006an,  
berriz, Kontxan  
laugarren egin  
zuen -euskal  
trainerurik onena  
izan zen-

hartuta, Zarautz bezalako herri batek arraun elkarte bat ez izatea harrigarria zela eta, sortze prozesuari ekitea erabaki zuten. Bilera bat antolatu zuten, eta jendearen erantzuna "izugarria" izan zen; izan ere laguntzeko eta arraunean egiteko interesa zuen herritar ugari joan zen bilera hartara, Sanchezek elkartearen 25. urteurrenaren harira argitaratu-tako liburuan dioenez.

Lehenbiziko bi urteetan kluba egonkortzen eta mutilak entrenatzen aritu ziren, eta 1986an egin zuten lehenengo denboraldia traineruetan. Handik bost urtera, 1991n, ber- rriz, Kontxako Banderara sailkatzea lortu zuen Zarautzek.

### **2003tik aurrera, urterik onenak**

2003an, TKE Liga sortu berritan, han sartzea lortu zuen Zarauzko taldeak, eta mailari eustea lortu ez bazuen ere, elkartearen garai onenen hasiera izan zen hura: 2005ean KAE Ligan bigarren egin zuen, ber- rriz TKEra igotzea lortuz; 2006an, ber- rriz, Euskadiko Trainerilla Txapelketa irabazi- ta hasi zuen denboraldia taldeak, traineruetan seigarren postuan amaitu zuen liga eta Kontxan laugarren egin zuen -euskal trainerurik onena izan zen-; 2007an ligan bosgar- rren izan zen, Zumaiako Bandera irabazi zuen eta Kon- txan laugarren postua eskuratu zuen; 2008an, ber- rriz, liga bosgarren amaitu arren, Kontxan sartzerik ez zuen lortu taldeak, baina denboraldia bikain bukatu zuten El Corte Ingles Banderan bigarren postua lortuta. Emaizta horiez gain, bateletan eta trainerilletan ere emaitza bikainak lortu zituen elkar- teak urte hartan: ontzi bietan Euskadiko eta Gi- puzkoako txapelketak irabazi zituzten kirolariek.

Ziklo haren amaiera 2009. urtean hasi zen, maila pixka bat jaitsiz; ligan zortzigarren postuan sailkatu zen Zarautz. Denboraldi bukaera iristean, entrenatzaileak eta hainbat arraunlarik elkar- tea utzi zuten, eta 2010ean maila galdu zuen Zarautzek. Harrezkero, KAE 1 mailan aritu zen, baina 2013an denboraldia 11. postuan amaituta, berriro galdu zuen maila. Hurrengo urtean KAE 2 liga irabazi zuen, zortzi bandera lortuta zilarrezko mailarako txartela eskuratuz.

### **Emakumeak, 2013an**

2013an sortu zuten emakumeen lehen trainerua. Talde hura, etxeko arraunlariez gain, Tolosako emakumeek osa-



**ANDATZA**  
**KAFETEGIA**  
**OKINDEGIA**



*Bereziki*  
**GOSARI ETA ASKARIAK**

TELEFONOA  
**943-83 29 66**

PLAZA ITURRILUN 3  
**ZARAUTZ**



# GUKAZERBITZUAK



08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen digital multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea eta marka irudia



Atari digitalak

06



Diseinu lanak



Telebista

**MARKETIN eta  
KOMUNIKAZIO  
ZERBITZUAK**

05



Webguneak eta marketin digitala

04



Edukien sorkuntza

03



Komunikazio kanpainak

02



Estrategia eta planifikazioa

B

K

erlo



KH



ZH

• Araba kalea 27, 20800 Zarautz (Gipuzkoa) • Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

• 943-81 38 41 • [gukazerbitzuak@ukt.eus](mailto:gukazerbitzuak@ukt.eus)





9

tu zuten, eta Gipuzkoako Ligan seigarren postua eskuratu zuten haiek. 2014an Getariako Arraun Elkartearekin batera aritu ziren, eta Gipuzkoako Liga bosgarren amaitu zuten. Hurrengo urteetan ere elkarrekin jarraitu zuten Zarautzek eta Getariak, eta emaitza aipagarriak lortu zituzten: 2015ean bi bandera eskuratu zituzten, eta 2016an, berriz, Kontxako Banderan debuta egin zuten, bosgarren sailkatuz.

Urte luzez traineru propiorik gabe aritu ondoren, 2021ean berriro uretaratu zuten Enbata, harrobiko neskak kanpoko klubetatik itzuli eta jende berria etorri ondoren.

### Harrobi falta

Gaur egungo egoera "gogorra" dela aitortu dute elkarreko kideek, gizonen taldea osatzea gero eta zailagoa egiten zaielako: "Eusko Label mailan ibili ondoren, ume gehiago espero genituen, baina ez dugu lortu ume eta gazte jendea erakartzea. Egia da gero eta ume gutxiago daudela gizartean, baina... Gero eta gutxiago animatzen direla ikusirik, gero eta zailagoa da kateari eustea. Gaine-

ZAEren 2022ko taldeen aurkezpena. ZARAUZKO HITZA



ra, badugu goi mailan aritzera oso gazterik iritsi zen belau-naldi bat, eta maila horretan aritzetik maila apalagoetara jaitea zaila izan da eramateko edo ez ditu asetu jardunak edo...”, azaldu du Gaizka Garmendia ZAEko patroiak eta batzordekideak. Emakumeetan, aldiz, lehenbiziko deialdia egin zutenean, 25 lagun prestu agertu zirela gogoratu dute, nahiz eta haietatik hogeik ez zekiten arraun egiten. “Hiru urtez jarraian gabiltza uretan, eta urtez urte maila hobetzen ari dira. Hala ere, emakumeek beti lehenago uzten dute arrauna, ikasketak direla, lana dela... Ea taldea mantentzen dugun, jarraipena ematekoa aukera izango baikenuke”.

10 Arrauna kirol desberdina da: ordu askoko jarduna eta esfortzu handia eskatzen ditu. Hiruzpalau orduko saioak egiten dira gutxienez, arraunean ez dago ordubeteko saiorik: txalupa uretara eraman, arraunean egin, ondoren trainerua jaso, desplazamenduak... Eguraldiak ere asko baldintzatzen duen kirola da, eta negua “oso luzea” egiten dela aitortu dute ZAEko kideek. Klubak, gainera, Aian du egoitza, eta horrek are denbora gehiago eskatzen die desplazamendu kontuetarako. “Hori *handicap* handia da, Zarauzko umeek ez dutelako herrian arrauna ikusteko aukerarik. Beste arrazoietako bat da Zarautzek eskaintzen duen kirol aukera handia. Hori ona da alde batetik, aukera ugari dituztelako umeek, baina zenbait kirolentzat zailagoa da lana egitea, guretzat adibidez”, adierazi du Jon Artola ZAEko lehendakariak.

Taldeak osatzeko arazo horiek harrobi faltak eragindakoak direla jakinda, horri buelta ematera ari dira bideratzen saiakera guztiak. Arraun munduan bi lerro daude nagusiki, ZAEkoen arabera; fitxaketetan oinarritzen dena edo harrobia baliatzen duena. Zarauzko Arraun Elkartearen lerroa, baina, harrobiarena da. “Traineru batek harrobiarekin ondo funtzionatzeko, urteetako lana egin behar da. Horretarako gakoa umeak dira, baina une honetan hori da, hain zuzen ere, falta dena... Azken 3-4 urteetan hutsunea dago umei dagokienez, eta beraz, trainerua uretan mantentzeko lain daukagu oraingoz. Hurrengo urteetara begira, gazteak erakartzea da gure xedea”, azaldu du Artolak.

Horretarako, abuztuan Zarauzko Estropadak jokatzea



Traineru batek harrobiarekin ondo funtzionatzeko, urteetako lana egin behar da



garrantzitsua da ZAErentzat, umeek eta gazteek arrauna bertatik bertara ikusteko aukera izaten dutelako. Ikusgarritasun hori lortzeko beste hainbat trikimailu erabiltzen dituztela ere adierazi dute elkarteko kideek: Eskola Kirola egitasmoan sartuta daude, ikasleak egoitzara gonbidatzen dituzte saio desberdinak egitera, kukaña denboraldia antolatzen dute uda garaian...

ZAEk gaur egun ez du talde sendo bat eskaintzeko baliabiderik, baina badu arma sekretu bat: giro ona. "Kirola oso jarduera lotua da, baina bueltan asko ematen du: lagunartea, adibidez. Taldearen barruan egon arte ezin da ikusi zenbaterainoko lagunartea eskaintzen duen, baina arrauna bizitzera animatzen denari asko gustatzen zaio". Hain zuzen ere, Zarauzko elkarteak horretan badu talde sendoa.

**Iazko Zarauzko Bandera.**  
ARANAITZ RUBIO APREA



Juan Mari Larrañaga garaipen bat ospatzen.

ORIO ARRAUNKETA ELKAR-  
TEAREN SARE SOIZALAK

12

### Txiki eta Makazaga gogoan

40 urteko ibilbideak askorako eman du, eta hainbat eta hainbat pertsona igaro dira urte horietan guztietan klubetik. Pisu garrantzitsua izan duten herritarrak ugari izan diren arren, lerro hauetan ezin dira guztiak aipatu. Batzuek sona edota oihartzun handia izan dute, Juan Mari Larrañaga *Txikik* adibidez, eta beste batzuek, aldiz, atzeko lan isila egin dute, Joxe Makazagak kasu. Biek ala biek zein beste askok egin dute Zarauzko Arraun Elkarteak.

Nahiz eta Orioko traineruan lortu zituen emaitza garrantzitsuenak, Larrañagak Zarautzen errotu zituen arraun munduan lortzera iritsi zen guztiaren sustraiak. Izan ere,

Zarautzek *Txiki* patroiz zela irabazi zuen aurreneko bandera, 1985ean, kadete mailan. "Kluba sortu berria zen, eta elkarrekin oraindik ez zuen trainerurik. *Txikik*, baina, Gipuzkoako batel txapelketako lau kategoriatan parte hartu zuen patroiz gisa; infantil, kadete, jubenil eta senior mailetan. Hiru mailatan irabazi zituzten banderak, eta laugarrengoa, berriz, bigarren postuan sailkatu ziren. Ikaragarria izan zen!", azaldu du Gaizka Garmendia ZAEko batzordekideak.

Ikasteko asko zuen arren, garbi ikusi zuten ordurako harribitxi bat zela *Txiki*. "Zarauzko taldean hasita, esperientzia hartzen joan zen poliki-poliki", azaldu du Joseba Ostolaza arraunlari ohi eta *Txikiren* lagunak. Garapen handia egin zuen *Txikik* urte haietan, eta 1998an, Orioko taldean zela, jokaturako txapelketa guztiak irabazi zituen: guztira, hamalau estropada, tartean Liga, Kontxa eta Espainiako txapelketak. Zein zen haren sekretua? Gorpuzkera txikia zuen, indartsua zen eta bizkorra ere bai: "55 kilo eskas pisatzen zituen, eta 1,60 metrora ez zen iritsiko, baina zituen ezaguerriak ez sinestekoak ziren", esan du Jon Peñagarikano arraunlari ohiak eta lagun minak.

Patroiz gisa ikaragarria bazen, denak ados daude pertsona eta lagun bezala are hobea zela esaterakoan: "Taldea egiten zuen. Horretan oso ona zen, eta hori funtsezkoa zen eta da emaitza onak lortzeko". Hala sakondu du Ostolazak: "Gu baino zerbait zaharragoa zen, eta berak hartzen zuen

# ORIALKI



943 49 45 57



OIARTZUN



info@orialki.com



14

Larrañaga 1989ko Gipuzkoako Trainerila Txapelketako banderarekin. ZAEREN 25. URTEURRENEKO LIBURUA

beti autoa, edozein afari, bazkari edo festa egin behar genuela. Garai hartan izarra zen *Txiki*; telebistak ez zuen arrau txapelketarik ematen orduan, baina, hala ere, mundu guztiak ezagutzen zuen joaten ginen herri-joaten ginela. Eskerrak ez zegoen gaur egungo telebistarik!". Zarauztik Oriorako bidea egin arren, hark Zarautz barruan zeramala esan du ZAEko batzordekide Garmendiak. "Eta hori nabaritu egiten genuen, topo egiten genuen estropada guztietan gertutasuna erakusten zigulako eta animoak ematen zizkiguako".

Peñarrikanok gogoan du oraindik Legutition *Txiki*ekin izandako pasadizo: "Ura edan eta edan ari zen, eta nik ez nuen ulertzen zergatik edaten zuen horrenbeste... 'Zer egiten dek?' esan nion nik, eta haren

erantzuna: 'Pisua eman behar diat'. Ura edaten amaitu zue-nean, pisatu egin zen, eta noski, irabazi egin zuen. Bazkal-terera joan ginen ondoren, eta zer eskatuko bazkaritarako, eta zopa! Zerbait beroa behar zuela eta... Ikaragarrizko jipoiak ematen zizkion urdailari. Eta asko sufritzen zuen".

Duela 25 urte, 1998ko urriaren 24ean hil zen *Txiki* auto istripu baten ondorioz, baina bere oroitzapenek, balentriek eta izaerak bizirik diraute.

### Makazaga, "autentikoa"

Joxe Makazaga zenak, berriz, ezkutuko lan ugari egin zuen Zarauzko Elkartean. Klubeko arlo guztietatik igarota, elkar-teari zeukan guztia eman zion: "Garai batean, zuzendari-tzan egon zen pertsona bakarra ere izan zen!", azaldu dute elkarteko kideek.

Orain autoz joaten dira gazteak ZAEk Aian duen egoitzara, eta urruti gelditzen dela-eta kexatu egiten diren arren, Makazagaren garaian hiru batel hartu eta Getariara eramateko atoa behar izaten zela gogoratu dute taldeko kideek. "Bi garraiobide zeuden orduan; bata, furgoneta, klubekoa zena, eta bestea, Joxeren autoa. Han joaten ziren arraunlari denak autoan sartuta... Orain ezinezkoa litzateke horrela ibiltzea", dio Garmendiak.

Lana egiteko grina bezainbestekoa zuen Makazagak umorea, eta beti txisteak kontatzen aritzen zela gogoratu dute ZAEko ordezkariak. Txisteak bakarrik ez, ordea, pasadizoak eta bertsoak ere bai, baina bazuen bereziki gustukoa zuen eta "harro" kontatzen zuen txiste bat. Umea zela, Zarauzko Ikurriña txapelketarako balizak jartzen laguntzera joaten zen aitarekin, baina hori egin aurretik, goizean goiz, txibiak arrantzatzerara joaten ziren biak. Txibiak harrapatzen zituzten lehenik, estropadarako balizak jartzen zituzten gero, eta lehorreratzean, arraindegira joaten ziren txibiak saltzera. Balizak jartzeagatik, bazkaria ordaintzen zien Zarauzko Udalak, eta bazkari horretan, beraiek arrantzatutako eta saldutako txibiak jaten zituzten. "Bere barre bereizgarri harekin kontatzen zuen pasadizoa", esan du

Garmendiak. Makazagak kontatzen zuen beste txiste bat ere ekarri du gogora: "Arraunlari bati isuna jarri zioten gaizki aparkatzeagatik, eta Makazagak isuna eskatu zion hari, konponduko zuela esanez. Udaltzainburuarengana joan zen kentzeko eskatzera, eta isuna kendu zionean, zera esan zion Makazagak: 'Aizak! Hi, gainera, elkarteko bazkidea haiz, eta urteko kuota ordaintzeko daukak oraindik!'. Isuna kendu, eta hala ere, kuota eskatu zion hark... Autentikoa zen".

Gaur egun ZAEk dituen instalazioak egokiak direla uste du Artolak, garai batekoekin alderatuta batez ere. Izan ere, haren hitzetan, hasi zirenean instalazio "oso prekarioak" zituzten. Gaur egun dituzten azpiegiturak Makazagaren lanaren fruitu direla azaldu du hark. "Nola egin genuen beste kontu bat da, ordea. Izan ere, gauza asko ikasi genituen Joxerekin, gauza onak eta ez hain onak ere bai", esan du barrez taldeko lehendakariak.

Makazagaren oroitzapen onak dituzte taldeko kide denek, hori argi dago: "Dagoen lekutik elkartera begiratzen ari bada, gustura egongo da. Izan ere, ez zuen seme-alaba arraunlaririk izan, baina orain bi bilobak emakumeen traineruan ikusteak poztuko luke Joxe", adierazi du Peñagarikanok.



Makazaga, goian 2006ko Kontxako Banderaren ospakizunetan. Behean, Aiako egoitza berriaren inaugurazioan.

ZAEREN 25. URTEURRENEKO LIBURUA



# 40 URTE



## ZARAUZ ARRAUN ELKARTEA

16



## Ospakizunak

40 urte ez dira askotan betetzen, eta urteurren borobila ez izan arren, Zarauzko Arraun Elkarteak ondo ospatu nahi du urtemuga. Horretarako, hainbat ekintza egin ditu: Txuleta Festa antolatu zuen, eta horren baitan, elkarteko lehendakari eta traineruko entrenatzaile izandakoei omenaldia egin zieten. Horrez gain, Gipuzkoako Traineru Txapelketa antolatu dute. Gainera, urtemuga bereziaren oroigarri gisa logo berria kaleratu dute, jertse berriekin batera, eta babesleentzat banatzen den arropa berezi egiten saiatu dira. Urte amaierara bitartean ez dute aparteko ekitaldirik aurreikusten.





**BODEGA  
KATXIÑA**

[www.bodegakatxina.com](http://www.bodegakatxina.com)



*Ortzaika, 20  
ORIO*



*943-58 01 66  
606 36 76 93*



**Hondartzaz eta igerilekuaz  
gozatzeko**

**UDAKO  
GUKA  
PRODUKTUAK**

**Nahi al dituzu?**



Informazio guztia: [www.zarauzkohitza.eus/denda/](http://www.zarauzkohitza.eus/denda/)



# Inmobiliaria ORIO

ERAIKUNTZA  
SUSTAPENA  
KUDEAKETA

## **INMOBILIARIA ORIO** ZARAUZKO ESTROPADEKIN eta ZARAUZKO ARRAUN ELKARTEAREKIN

Oriotarrak izatez, Zarautz lanleku, arraunerako zaletasuna bihotzean daramagu Inmobiliaria Orio. Zaletasunetik haratago, ordea, pauso garrantzitsuak eman ditugu Zarauzko arraunaren alde. Hala, 1990 urtean Zarauzko estropadak bi egunez ospatu ahal izateko babesle bila zebilen udala, eta Inmobiliario Orioko kideok prest aurkeztu ginen, gaur egun ezagutzen ditugun bi egunetako Zarauzko Estropadak sortuz.


Bederatzi urteren ondoren, eta Zarauzko Ikurriña egonkortuta izanik, Zarauzko Arraun Elkartearen traineruari izena ematen hasi ginen. Hamalau urtez babestu zuen Inmobiliaria Oriok Zarauzko Arraun Elkartea, klubaren garai onenak biziz: ACT ligan Zumaiako bandera irabazi zuen, Kontxan laugarren postua lortu zuen...

Garaipen handienetakoa, ordea, uretatik kanpo eskuratu zen: elkartearen egoitza berria. Klubaren, Zarauzko Udalaren eta gure arteko elkarlanaren ondorioa izan zen hori; izan ere, Inmobiliario Oriok aholkatu zituen pabiloia erosteko, baimenak lortzeko, obrak egiteko edota pantalana jartzeko orduan.

Arrauna eta estropadak pasio ditugu, eta Orioko arraunari ere gure aletxoak eskaini diogu, urte askotan Orioko Ikurriñaren babesle izanik eta azkeneko urteetan Orioko traineruak lagunduz.



Nafarroa Kalea 13 | ZARAUTZ | T. 943-89 44 33 | [orio@inmobiliaria-orio.com](mailto:orio@inmobiliaria-orio.com)



**LEIHOAK.com**  
eta toldoak



**www.leihoak.com**

**943-00 22 75 - 619 43 20 79**

**leihoak@leihoak.com**

**Leihoen eta toldoen erakusketa**

**Zelai Ondo, 23 | ZARAUTZ**